

EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA (2025-26 IKASTAROA): OINARRIAK

1.- Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da euskara ikasten ari diren Malerrekako herritarrei diru laguntza emateko modua arautzea.

2.- Diru laguntzaren gaiak. Diruz lagunduko dira 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra arte egindako euskara ikastaroen matrikula gastuak, ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta *on line* egindakoak.

Ez dira diruz lagunduko joan-etorri gastuak, liburu eta material gastuak, barnetegietako egoitza gastuak eta ikastaroan ikasleak jarduera akademikoaren osagarri moduan egindako bertze edozein jarduerengatik egindako gastuak. Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin ahalko du.

3.- Deialdiaren publizitatea. Hau aditzera emateko deialdiaren testu osoa Malerrekako Mankomunitatearen webgunean eta Diru laguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) paratuko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.- Diru laguntzaren ezaugarriak eta zenbatekoa. Diru laguntza mota bakarra egonen da, eta ikastaroan izandako asistentzia mailaren arabera, gehienez ere ikastaroko matrikula gastu osoaren adinakoa izanen da. Gehienez ere, diru laguntza hau 460 eurokoa izanen da.

- Diru laguntza matrikularen kostu osoaren adinakoa izanen da ikastaroan izandako asistentzia %85etik goitikoa denean.
- Diru laguntza matrikularen kostuaren %75 izanen da ikastaroan izandako asistentzia %70-%85 bitartekoa denean.
- Ez da diru laguntzarik jasoko ikastaroan izandako asistentzia %70etik beheitikoa denean.

Diru laguntzak ordaintzeko gehienez ere Malerrekako Mankomunitatearen 2026ko aurrekontuan (1 3350 48002 kontu sailean jasotako kreditua) helburu honetarako aurreikusitako diru kopurua erabiliko da.

5.- Eskatzaileek bete beharreko baldintzak. Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunerako:

1. Gutxienez 16 urte izatea.
2. Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean errolatua egotea. Malerrekako udaletan edo mankomunitatean lanean ari diren langileek dirulaguntza jaso ahal izanen dute nahiz eta mankomunitateko udalerrietako batean errolatua ez egon.



3. Diruz lagundutako ikastaroan asistentzia maila deialdi honen 4. oinarrian azaldutako portzentajeen arabera izanen da. Justifikaturiko falta gisa onartuko dira gaixotasunen, mediku kontsulten edo arauturiko azterketetara joatearen ondorioz behar bezala aurkeztutakoak.
4. Eskatzen den dokumentazioa zehaztutako epean aurkeztea.
5. Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko).
6. Ezinbesteko baldintza izanen da euskara ikasteko ikastaroak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak (Euskarabideak) deitutako dirulaguntza garaiz eta behar bezala eskatzea. Horretarako, eskatzaileak dagokion deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko du eskaera, eta deialdian ezarritako betekizun formal eta material guztiak osorik bete beharko ditu. Baldintza hori ez da betetzat joko eskabidea epez kanpo aurkeztu bada, osatu gabe badago edo foru-deialdian ezarritako baldintzak bete gabe aurkeztu bada.

Betebehar honetatik salbuetsita egonen dira Nafarroako Gobernuari dagokion deialdian xedatutakoaren arabera haren aplikazio-eremu subjektibotik kanpo dauden pertsonak edo deialdi horretan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik laguntzaren onuradun izan ezin direnak.

Mankomunitateak ofizioz eginen ditu baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko behar diren egiaztapen lan guztiak.

6.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa aurkezteko epea **2026ko irailaren 1etik 30era izanen da, bi egunak barne.** Hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraituta.
- b. Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- c. Erroldatze ziurtagiria.
- d. Euskaltegiko matrikularen ordainagiria(k).
- e. Euskara ikastaroa antolatzen duen erakundearen ziurtagiria, honakoak zehazten dituenak: ikastaroaren iraupena, maila, matrikularen kostua eta diru laguntza eskatzen duen ikasleak izan duen asistentzia portzentajea.
- f. Aitorpena, objektu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden.

Dokumentazioa Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko egoitza elektronikoen bidez (<https://sedeelectronica.malerreka.eus/>) aurkeztu beharko da, edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

7.- Aurkeztutako dokumentazioan egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten



bada, 10 egun emanen zaizkio akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran gibelera egin duela ulertuko da. Malerrekako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena emanen du.

8.- Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko erabakia Malerrekako Mankomunitateko lehendakariak hartuko du, Euskara Batzordearen irizpena ikusita. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso bideak, zein organoren aitzinean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, bertze edozein errekurso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2026ko abenduaren 31n akituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsizat joko da.

9.- Dirulaguntzaren ordainketa. Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, horiek emateko erabakia hartu ondoren. Ordainketa banku transferentzia bidez eginen da, eskatzaileek adierazitako kontu korrante zenbakian.

10.- Bateragarritasuna. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

11.- Datu Pertsonalen Babesa. Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, eskatzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen tratamendu sistemetan jasoko direla eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta mankomunitatearen berezko eginkizun legalak burutzeko. Era berean, mankomunitateak, bere legezko interesean oinarrituta, interesdunari bere interesekoa izan daitekeen informazioa bidaliko dio. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, datuak epe zehatzik gabe gorde ahal izanen dira.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edota legediak horrela agintzen duenean bere datuak mankomunitateko sail desberdinei, Nafarroako Gobernuari, eta mankomunitatearekin harremana duten beste erakundeei, bai publikoak bai pribatuak komunikatuak izan daitezke.

Mankomunitateak ematen duen zerbitzua edota dokumentu hau onartzeak esan nahi du eskatzaileak onspena eta baimen zehatza ematen duela, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen, mugaketa, portabilitatea eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatu dezake, baina gai honi buruzko bestelako edozein eskaera egin ere. Horretarako Tratamenduaren Erantzulearengana jo beharko da, helbide honetan: Malerrekako Mankomunitatea, Zazpigurutze, 2, behea, 31740 Doneztebe edo posta elektronikoa honen bitartez: euskarazerbitzua@malerreka.eus. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat paratu nahi badu, kontrol aginte eskudunera jo dezake, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegora (www.aepd.es).



12.- Dirulaguntzen itzulketak. Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b. Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c. Helburu bera duten eta bateraezinak diren diru laguntzak aldi berean jasotzea.
- d. Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

13.- Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Arautegi Orokorak aginduko dute.

14.- Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Nafarroako Toki-Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

15.- Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.



Eskaera orria

Eskatzailearen datuak

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NAN:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-posta:
- ✓ Kontu korrante zenbakia:

IBAN _____ 20 digitu: _____

Euskara ikastaroei buruzko informazioa

- ✓ Euskaltegia:
- ✓ Maila(k):
- ✓ Ikastaro mota:

- Estentsiboa
- Trinkoa
- Barnetegia
- On line

- ✓ 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra bitarteko matrikula gastuak

€

Data eta sinadura

ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko edo pribatuk emana.
- Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ENTITATEA	ZENBATEKOA (€)	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskaerarik eginez gero, Malerrekako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

Data eta sinadura